

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Idea zaparrada egin ondoren, bost enpresa aukeratu ditugu: lanera joan autobus batean spinning egiten, bizikleta estatikoak energia sortzeko, denda bat eskola barruan bokatak eta janaria saltzeko, etxean zerbait galtzerakoan sentsoreen bidez aurkitzea eta esatea eta azkenik, bidaiatzeko furgonetak eta autokarabanak eskeintzen eta bidaiak prestatzen dituen enpresa. Ostean, akordio batetara iritsi gara.

Berdinketa atera ondoren, aukeratu dugun ideia, azkena izan da, enpresa bat non hainbat motatako **furgonetak eskeintzen ditugun eta bidaiak antolatzen dugu plus batzuekin. Gure enpresak bidaiak antolatzen ditu bezeroen eskaeren arabera.** Mota askotako plusak ditugu bezeroaren ezaugarrien arabera. Gure enpresaren izena **Cityfurgo** da. Lau motatako pack-ak ditugu: mendikoa, hiriak bisitatzekoa, gastronomikoa eta pertsonalizatua.

Hasteko, **mendikoa** daukagu. Aukera honetan hainbat azpimultzo daude, esaterako: parke naturalak bisitatzeko, haitzuloetara joatea, naturatik bizikletaz ibiltzea... Gainera, gidari lokal bat bezeroen eskura izateko aukera dago.

Beste aukera bat **hiriak bisitatzekoa** da, non hiri bakoitzeko lekurik garrantzitsuenak eta interesgarrienak bisitatzeko gain leku turistikoaren sarrerak erosten ditugun. Gainera leku ez turistiko batzuk gomendatzen ditugu. Adibidez Gasteizko mural famatuena ikusteko tourra... Hirietan ere eleberrietan oinarritutako bisita gidatuak eskaintzen ditugu: adibidez Gasteizen “El Silencio de la ciudad blanca”, “La mujer del Reloj”...

Azken aurreko mota **gastronomikoa** da, non egun bakoitzean jatetxe famatuena sukaldaria sartzeko aukera ematen dugun eta eskualdeko plater famatuena sukaldatzen ikasteko ikastaroak eskaintzen dugun eta ondoren jateko aukera ematen dugun.

Azkena **pertsonalizatua** da. Hori antolatzeko bezeroen adinetan oinarritzen gara. Adibidez: 60 urteko pertsona bat etortzen bazaigu bidaiak lasai bat antolatuko diogu esate baterako bainuetxe (Panticosako bainuetxea). Gainera hortik gertu lasaiak eta bista zoragarriak dituzten ibilaldiak daude, esate baterako El salto del Gallego. Beste plan batzuk daude, hala nola La Cuniacha animalien zoo-a. Txikiak izatekotan bizipen berriak ere eskaintzen ditugu: txakurrek gidatutako trineoetan ibiltzea, atrakzio parkeetara joatea, karting-etara joatea, eskulanak...